

{ datorrena } Iratxe Urizar

Beste lau

H orrelako egoeratan agian gehiegi eska-tzea bada ere, sentsazionalismotik alde egitea da nire gaurko asmoa. Lau hildako daude gurean oraingoan, pobreziak eta instituzioen utzikeriak eraginda lau lagun-ek bizia galdu dute, familia oso bat hil da. Bilboko Zorrotza auzoan, bizitzeko berme gutxie-nekoak betetzen ez zituen etxe batean gertatutako su-teak eragin ditu heriotzok; istripua izanik ere, ekidin zitekeen ondorioa izan zuen suteak.

Hildakoak ijito familia bateko kideak zirela ezagu-tzen hasi zen unean bertan, hasierako une lazgarriek horren mingarriak izateari utzi zioten hainbatentzako. Ez zen familia soila, pobreak izateaz gain, ijitoak ziren. Eta mina arinagoa izaten laguntzen duten bi kontzep-tu dira horiek. Izan ere, arrazismotik harago, gure gi-zartean txiro izatea kriminalizaziotik hurbil egotera pasa da. Ezin ahaztu gizarte laguntza ekonomikoen in-guruan egun batean bai eta hurrengoan ere bai sor-tzen diren eztabaida errekkurrenteak: laguntza jasotzen dutenen aurkako egunkari titularrak etengabeakoak di-ra, eta gaur egun laguntza horietara jotzeko baldintzak oso zorrotzak badira ere, lupa erraldoi baten pean jar-tzen dira pertsona horiek.

Diru sarrerak bermatzeko errenta dela-eta, iruzur izugarria dagoela ateratzen da etengabe hainbat egun-karitan. Berdin dio horren inguruko detaileak zein-tzuk diren jakiteak, benetako iruzurra dagoen edo ez ziurtatzeak edo benetan administrazioaren funtziona-mendu okerragatik ematen diren egoerok, goazen titu-lar potolo bat publikatzera. Berdin dio, era berean, egunkari berean baina bestelako sekzio batean, egun berean bertan, futbol jokalaria famatuek Ogasun Publi-koari (hori ere denen dirua da, ezta?) egindako milioi-ka eurotako iruzurra dela-eta, litekeena kartzela zigo-rrik ez dutela jasoko esateak. Baliteke horiek ere

etorkinak izatea, baina kasu horretan ez dira pobreak. Azken finean, ordaindu beharreko zergak ordaindu ez badituzte, tira, ez zekitelako izango da, futbolariak ez dute-eta zertan ekonomian aditu izan. Hara!

ETXE DUINEN ALDE LANEAN

Urteak dira Beste Bi bezalako elkarteak lanean ari dire-la etxe duinak aldarrikatzen. Kanean bizi diren herritar anonimoen bozgorailu dira, gehienen izen-abizenak erabat ezezagunak zaizkigun herritarrak. Kale gorrian hiltzen direnen bozgorailu ia bakarrak dira. Izan ere, pertsona horiek eskubide guztien jabe dira teoriar, baina, praktikan, “ligatik” erabat at daude. Ez dira “bi-garren mailako” pertsonak ere izatera iristen, maila as-koz ere beheragoren batean kokatzen dira.

Etixerik ez duten pertsonak, “etxe” deitu ezin daite-keen tokietan bizi diren pertsonak, edota, zerbitzu pu-blikoen murrizketaren ondoren, behar den osasun-la-guntza jaso ezin dutenak ere hor daude. Haien bizi kalitate maila asko okertu da eta, hori gutxi ez, eta as-kotan behar duten osasun arreta jasotzeko aukerarik ere ez dute.

Erresuma Batuan hurrengo astean izango dira hau-teskundeak eta gaia agendaren erdi-erdian dago. Gi-zartearengan piztu den eztabaidetako bat, izan ere, ho-rixe da: hautagai baten edo bestearen inguruko kanpaina egin beharrean, hainbat urtetan harrotu di-tuen osasun zerbitzua kolokan dela salatzen dute. Zer-bitzu publikoen pribatizazioaren aurkako mugimen-dua asko handitu da azken garaiotan, pribatizazioak pertsonengan izango dituen ondorio lazgarri guztiak azaleratuz. Instituzioen gabezia hor dagoela argi iza-nik ere, gizarte moduan arazoaren inguruan dugun pertzepzioa ere aldatu beharra dago, lehenbailehen. Gai honen inguruan dagoen lasaikeria orokorra gain-ditu beharra dago. •

Hildakoak ijito familia bateko kideak zirela ezagutzen hasi zen unean bertan, hasierako une lazgarriek horren mingarriak izateari utzi zioten hainbatentzako. Ez zen familia soila, pobreak izateaz gain, ijitoak ziren